



ITAKA
ESCOLAPIOS

Calasanz mugimendua

KUTSATU
ZAITEZ

elkartasunarekin

Nori zuzendua: Calasanz mugimendua

Helburua: pandemiaren ondorioek gizartean antibalioak nola areagotu dituzten hausnartzea eta burutu daitezkeen ekintza gehatzak proposatzea, bai eta denon artean ekintza solidarioren bat egitea ere.

Jardueraren sarrera:

Covid-19aren pandemiak eta beldurraren, indibidualismoaren, bagterkeriaren,... pandemiak kolpatutako munduan, pertsona askok "pandemia hauen" ondorioz sufritu dute eta aurpegi asko dituen birus batekin gaixotu dira.

Guk geuk izan behar dugu gure ikastetxeko, gure parrokiako txertoa. Kutsa dezagun gure ingurua elkartasunarekin, elkar zaintzarekin, enpatiarekin, entzutearekin, baloratzearekin... Hemen eta munduko bagter guztietan.

Nola lor dezakegu?

Jarduera honen bidez, Covid-19aren errealitate berri honetan hedatu eta areagotu diren munduko "birusak" erakutsi nahi zaizkie haur eta gazteei. Eta ikusarazi beren inguruan (familia, lagunak, ikastetxea, parrokia,...) ekintza solidario handi eta txikien protagonista izan daitezkeela.

Jardueraren garapena:

- 1 - Mapamundi bat jarriko da (proiektorearen bidez edo paperean) denek ikus dezaten.
- 2 - Gaur egun munduan dauden benetako aragoen zerrenda egingo da (Tripulazioa birusaren aurka aurkezpena erabil daiteke, bertan adibide batzuk agertzen baitira). Horretarako, "Eraldatzen hasteko prest" kanpainako pertsonaiak aurkeztuko ditugu, aurre egin nahi dioten "birusa" ere aipatuz. Tripulatzaile bakoitzak hurrengo taulan agertzen den balio bat ordezkatzeko du:
- 3 - Talde txikietan batzar moduko bat egingo da gai bakoitza lantzeko, arago hauen aurkako txertoak bilatzeko helburuarekin.
- 4 - Ekintzak proposatzen diren heinean, ikasleak mapara hurbilduko dira txertoa irudikatzen duen eranskailu bat (edo tiritak) bat sendabidearen sinbolo gisa) Itaka-Eskolapioak dauden lekuetan jartzeko. Tripulazioa birusaren aurka aurkezpenaren mapamundi bat agertzen da, non herrialdeak "txerto" batekin seinalatzen diren.
- 5 - Egin diren proposamen guztietatik, zein ekintza bururatzen zaigu edo zaizkigu gure ikastetxean, parrokiaren edo inguruan elkartasuna kutsatzeko.
- 6 - Ikasleak ados jarri beharko dira eta adostutakoa praktikan jarri beharko dute.

Itaka-Eskolapioak dauden herrialdeak

- Mapamundia sendabidearen eranskailuekin
- Bolivia: Anzaldo, Cocapata, Cochabamba, Santa Cruz
 - Brasil: Aracaju, Belo Horizonte, Governador Valadares, Serra
 - Burkina Faso: Zingane
 - Kamerun: Bafia, Bamenda, Bamendjou, Bandjoun, Kumbo, Jaunde
 - Boli Kosta: Adidjain, Agbenville, Daloa
 - Espainia: Albacete, Alcañiz, Barbastro, Bilbo, Granada, Jaka, Logroño, Iruña, Madril, Peralta de la Sal, Sevilla, Soria, Tafalla, Tolosa, Valentzia, Gasteiz, Zaragoza
 - Filipinak: Kiblawan
 - Gabon: Libreville
 - Ekuatore Ginea: Bata, Ebebiyin
 - India: Aryanad, Bangalore, Kamda
 - Indonesia: Atambua
 - Mexiko: Campeche
 - Mozambique: Pemba
 - Kongoko Errepublika Demokratikoa: Kikonka, Kinshasa
 - Senegal: Dakar, Kolda, Mlomp, Oussouye, Sokone,
 - Venezuela: Barquisimeto, Caracas, Carora, Maracaibo, Valencia

Materiala:

ERANSKINA_Tripulazioa birusaren aurka Eranskailuak edo tiritak (proiektorerik erabiltzen ez bada)
Mapamundia (proiektorerik erabiltzen ez bada)



Calasanz mugimendua

PERTSONAIAK	BIRUSA	TXERTOIA
QUISAP (ingurumena eta garapen jasangarria)	Kutsadura, plastikozko itsasoa, natura gutxi zaintzea, galzorian dauden espezieak,...	
CALASANZ (hezkuntza)	Online hezkuntzara heltzeko zailtasunak, etxetik urrun dauden eskolak, eskola ugzea, ikasteko zailtasuna,...	
SUKAL (kulturarteko elkartasuna)	Arrazagatik diskriminatzea, aurreiritziak, norberekeria, kutsatzeko beldurragatik diskriminatzea,...	
BLA (bakea)	Gerrak eta indarkeria, ezinegona, zaintza falta, gertakariak ez komunikatzea eta ikusezin bihurtzea,...	
MARINE (gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka)	Gizarte-bazterkeria, gutxi baloratutako jendea, tristura, bakardadea,...	
JIWA (tokikoa-globala harremana)	Pobrezia, desberdinkeria soziala, beldurra,...	
ELYKIA eta ESENGO (hezkidetzatza)	Matxismoa, neskek zailago dute hezkuntzara heltzea, berdintasun eza, gizon eta emakumeen arteko estereotipoak,...	
LOOK (osasuna)	Higiene-neurriak hartzeko zailtasuna, maskarak gaizki erabiltzea, kutsatze masiboak,...	